

# getxoBerri

 **Getxo**  
bizi ezazu

  #GetxoBiziEzazu

Doako alea

1510 zb  
www.getxo.eus

Uztailak 19  
>> Uztailak 29

2018

## / Nabarmentzekoak

- > Kenia, Errusia eta Getxoko taldeak Folklore Jaialdian (3. or.)
- > Getxophotoren gaia "Gatazka-ostea: elkarrizketa berreraiki" izango da (4. or.)
- > 1.450 lagunek baino gehiagok hartu dute parte Fadura kirol parke berrirako premiak eta aukerak biltzeko fasean (4. or.)



Getxo&Blues hastear  
The Excitements eta  
The Blues Morning  
Singers taldeekin (3. or)

**Odol-ateratzea.** Uztailak 19, osteguna, Areetako Geltokia plazan. Goizez eta arratsaldez.

**Santa Ana jaietan.** Uztailak 20, ostirala, 19:00etan, txupinazoa. Ekitaldiak igandera arte, uztailak 22.

**A-  
GENDA**

Lehen ekintza Aixerrotako Paellen egunean izango da, igandean, uztailak 22

## Getxon planto eraso sexistei!, udako jaietarako kanpainaren leloa

Getxon jaietan eraso sexisten kontra eta jai berdintsuen alde herritarrek, batez ere gazteak, sentsibilizatzea, izango da beste urte batez Udalak herriko udako jaietara begira abian jarritako kanpainaren helburua. "Helburua da jai berdintsuekin, eraso sexistarik gabe, gozatzea, eta aldi berean, eskatzen dugu edozein erasoren aurrean, beste alde batera ez begiratzeko, salatze eta biktimari laguntza emateko. Nabarmendu eta zabaldu nahi dugu jaietan Ez duela edozerrek balio, eta EZ beti dela EZ, eta behin eta berrero saiatzeko jazarpena dela, eta jazarpena eraso", gogoratu du Keltse Eigurenek, Berdintasun Zerbitzuko zinegotziak. Kanpaina esku baten ingurukoa izango da eta leloa *Getxon planto eraso sexistei!*, udalerriko jaietan eraso sexisten kontrako jarreraren irudi eta sinbolo gisa. Irudi hori ikusgai izango da hainbat ekintza parte hartzailetan, eta baita totem, pegatina, kartel eta bus eta metroko publizitatearen bitartez ere.

### Partaidetza soziala mosaiko erraldoirekin

Eraso sexisten kontrako kanpainak herritarren partaidetza lortu nahi du jai nagusietan aurreikusitako jardueran batean, hau da, Paellen Egunean Itxas Argia elkartearen eta jai batzordeen laguntzarekin gainontzekoetan. Hori 10x10 metroko kanpainaren irudiaren mosaikoa osatzea izango da, 100 kartelarekin, pertsona bakoitzak batekin eskuan. Igandean, uztailak 22, 11:30ean izango da hitzordua, txosnen aurrean; uztailaren 18an, 14:00etan, San Nikolas plazan, Algortako jaietan; abuztuaren 1ean, 19:00etan, Romo Kultur Etxea, RKEko plazan, Romoko jaietan; abuztuaren 12an, 13:30ean, Portu Zaharreko zelaian, eta irailaren 21ean, 18:30ean, Areetako Eskoletako plazan, Ama Mesedetako jaietan. Ekitaldiaren bi ordu aurretik bi dinamizazio ibiliko dira jai eremuetatik kanpainaren edukiez jendea sentsibilizatzen eta mosaikoan parte hartzera gonbidatzen. Gainera, Udalak bi totem jarriko ditu kanpainaren irudiarekin eta informazio erabilgarria banatuko du aipatutako jaietan. Informazio hori triptiko baten bitartez banatuko du Udalak, eraso sexistak prebenitzeko eta eraso baten aurrean jokatzeke aholkurekin. Jaiak irauten duten bitartean, gizarte sarean bitartez udalerriko kultur, kirol, gizarte edo musika esparruetako per-



tsionen partaidetza duen bideo laburra zabalduko da, getxotarrak gonbidatzen eraso sexistarik gabeko jai berdintsuetan parte hartzera.

### Paellak

Paellen Nazioarteko Txapelketak, urtero bezala, gazte eta pertsona nagusi ugari bilduko ditu Aixerrotako zelaian, arrozaren eta jaiaren inguruan. Udalak paella lehia-keta Ixas Argia elkarteak antolatzen duen esparrutik kanpo dagoen gunean segurtasuna zainduko du, arriskuak murrizteko. Jaiari dagokionez, 10:30ean, txapelketarako izenematea izango da; 12:00etan, txalaparta, aurruskua eta Ixas Argia Dantza Taldearen ikuskizuna; 13:30etik 14:30era paellen aurkezpena; 17:30ean sari banaketa eta 18:30ean erromeria.

Getxon, planto eraso sexistei  
<https://youtu.be/wp1NveMkhU8>



### Beste jai batzuk eta diru-laguntzak

Paellen hitzordua eta Santa Anako jaiak batera izango dira aurten, eta ondoren San Inaziokoak (uztailaren 28tik 31ra) helduko dira; Romokoak (uztailaren 29an eta abuztuaren 1etik 5era), Portu Zaharrekoak (abuztuaren 11tik 14ra) eta Las Mercedes (irailaren 21etik 23ra). Aurten Udalak jai batzordeei ematen dizkien diru laguntzetan %4ko igotzea izango da. Horrela, San Inazioko jaietara 43.414€ zuzenduko dira (iaz 41.735€); 33.950€ Romokoetara (iaz 32.637€), eta 28.745€ Portu Zaharreko jaietara (27.634€ aurrekoetara). Diru-laguntzen igoera, besteak beste, udal gobernuak (EAJ/PNV eta PSE-EE) EH-Bildurekin 2016ko aurrekontuetan adostu zuen murrizketen berreskurapenaren ondorioa da, eta 2019ra arte jaietarako diru-kopurua handitzen joango da. Azkenik, Romoko eta Algortako ostalaritzako saltokiek ohi baino ordu bat eta erdiz beranduago zarratzeko baimena edukiko dute uztailaren 28tik 31ra, abuztuaren 1etik 4ra eta abuztuaren 11tik 14ra. Ama Mesedetako jaietan ere berdind izango da.



### UZTAILAK 19 OSTEKUNA

**Odol-ateratzea.** Areetako Geltokia plazan, goizez eta arratsalde. **30. Nazioarteko Blues Jaialdia.** 3. orrialdea ikusi.

### UZTAILAK 20 OSTIRALA

**30. Nazioarteko Blues Jaialdia.** 3. orrialdea ikusi. **Santa Anako jaiak.** **17:00etan** Txikigunea eta Koadrila Txapelketa; **19:00etan** txupinazoa eta Magia erakustaldia; **20:30etan** sardina jana eta **22:30etan** kontzertua Cosméticos eta HDH taldeekin.

### UZTAILAK 21 LARUNBATA

**30. Nazioarteko Blues Jaialdia.** 3. orrialdea ikusi.

**Santa Anako jaiak.** **10:00etan** Magic txapelketa; **11:00etan** Koadrila txapelketa; **11:30etan** Txikigunea; **13:00etan** Berantzagis Dantza Taldea; **14:00etan** Tortilla txapelketa; **17:00etan** Txikigunea eta Koadrila txapelketa; **18:00etan** Igela eta Txapel txapelketak; **19:00etan** Buruhandiak eta Kalejira; **20:30etan** saiheski jana eta kontzertua (Rap gaua) Tierra Kritikal eta Calero LDN + El Fichaje taldeekin.

**Ingurumen Aretoa.** **10:30etik 13:30era**, sasoko frutaz egindako buruntzi tailerra, txikiak. Doahinik baina izena eman behar da alde aurretik 688 88 35 96 edo [info@ingurumenaretoagetxo.eus](mailto:info@ingurumenaretoagetxo.eus) helbidean. Azaroaren 2ra arte Aranzadi Zientzia Elkartean intsektu erakusketa.

### UZTAILAK 22 IGANDEA

**30. Nazioarteko Blues Jaialdia.** 3. orrialdea ikusi.

**34. Nazioarteko Folklore Jaialdia.** 3. orrialdea ikusi.

**LXIII. Nazioarteko Paella Txapelketa.** Azala ikusi.

**Santa Anako jaiak.** **11:00etan** Futbol 3 txapelketa; **11:30etan** Txikigunea; **12:00etan** Koadrila txapelketa; **14:00etan** Paella txapelketa; **17:00etan** ur guda; **17:30etan** apar jaiak; **18:30etan** Herri Kiroiak; **19:30etan** sari banaketa; **20:00etan** karaoketa; **23:00etan** zinema eta **23:59an** amaiera.

### UZTAILAK 23 ASTELEHENA

**34. Nazioarteko Folklore Jaialdia.** 3. orrialdea ikusi.

### UZTAILAK 24 ASTEARTEA

**34. Nazioarteko Folklore Jaialdia.** 3. orrialdea ikusi.

### UZTAILAK 28 LARUNBATA

**Saninazioak. Ume eta Gazte Eguna.** **11:00-13:30**, puzgarriak eta Saharar eta Palestinar herriei elkartasuna adierazteko ekitaldiak, Biotz Alai plazan eta dantza-ikastaroa; **12:00etan**, kuadrillen jaitsiera (kuadrillen lehenengo proba), San Nikolas plazan hasita eta Vinilo FMren irratsaioa, azokan; **13:30etan**, pregoia eta suziria San Nikolas plazan; Getxoko XV. Ikurrina (KAE 2 Liga), Algortako Portu Zaharrean; **14:00etan**, eraso sexisten kontrako mosaikoa, Musika Eskola plazan; **14:30etan**, herri-bazkaria Atfal elkartearekin,

Biotz Alai plazan; **15:00etan**, Getxoko Beteranoen XV. Estropada eta XI. Portu Zaharra Ikurrina eta gazte-bazkaria, Musika Eskola plazan; **16:30etan**, elektrotxaranga, herrian zehar, San Nikolas plazatik abiatuta; **18:00etan**, nagusien luntxa, Zabala eskolan eta emakumeen estropada: Getxoko X. Ikurrina (Euskotren Liga). Jarraian, Getxoko XL. Ikurrina - Agirre Lehendakariaren XIV. Omenaldia (Eusko Label Liga); **18:30etan**, umeen jaitsiera, Areatxu fanfarrearekin, San Nikolasetik; **19:30etan**, XVI. Jota eta Arin-arin Txapelketa, Telletxen; nagusien dantzaldia, Zabala eskolan eta umeentzako txokolate-jana eta dantzaldia, Biotz Alai plazan; **20:00etan**, kontzertua, Love Masacre, Deiedra eta Rotten XIII taldeekin, Tellagorri plazan (auzoko tabernekin antolatuta); **22:00etan**, zezensuzkoa eta gazteentzako DJa, Telletxen, eta kontzertua Los Malvadillos taldearena, Kasino plazan (auzoko tabernekin antolatuta), eta **22:30etan**, kontzertuak, Item No. eta Los Zopilotes Txirriaos taldeekin, San Nikolasen. Egitaraua osoa: <http://www.getxo.eus/es/servicios/avisos/311>

**Ingurumen Aretoa.** Astronomia saioa, **22:00etatik 00:30era**, Bizkai Astronomia Elkartean eskutik, 16 urtetik gorakoentzat. Dohainik baina izena eman behar da alde aurretik 688 88 35 96 edo [info@ingurumenaretoagetxo.eus](mailto:info@ingurumenaretoagetxo.eus) helbidean.

### UZTAILAK 29 IGANDEA

**Saninazioak. Txipiñ Eguna.** Egund osoan, zirkua, herriko plazetan. **08:30etan**, XIX. Txipiñoi Lehiaketaren izen-ematea, Biotz Alai plazan; **11:00etan**, tailerrak eta puzgarriak, Telletxen; txalaparta-tailerra, Kasinon, eta grafiti-erakustaldia eta umeentzako tailerra, San Nikolas plazaren inguruan; **11:30etan**, motolasterketa, 2 eta 4 urte arteko umeentzat, Tellagorri; **12:00etan**, txalaparta, Kasino plazan, eta kantujira herriatik; **12:30etan**, igel-toka eta tiragoma jokoak, Katean; **13:00etan**, kuadrillen tortilla-txapelketa eta dastaketa, San Nikolasen (kuadrillen bigarren proba); familia-giroan zumba, Zabalketa GKEarekin, Tellagorri; bertso-saioa, Kasinon (Aitor Mendiluze, Igor Elortza, Miren Artxe eta Imanol Uribe), eta XIX. Txipiñoi Txapelketako lapikoan aurkezpena, Biotz Alai; **15:00etan**, kantu-bazkaria, Azebarrin; **17:00, 18:00, 19:00 eta 20:00etan**, XX. Zutik Eneko Caballero Futbito Txapelketaren lehenengo final-laurdena, Batzokiko patioan; **17:00etan**, umeentzako herri-kirolen tailerra, Telletxen, eta kuadrillentzako herri-kirolak (kuadrillen hirugarren proba), San Nikolas plazan; **17:30etan**, XIX. Txipiñoi Txapelketaren sari-banaketa, Biotz Alai plazan; **19:00etan**, buruhandiak herrian zehar eta Weepah Sound System Gaua, Telletxen; **19:30etan**, zeinek jan lehenago 1,5 kilogramo odoloste?, Kasino plazan; **20:30etan**, kontzertua, Jess y los Extenders eta Negra Calavera, Tellagorri (auzoko tabernekin antolatuta); **22:00etan**, zezensuzkoa, Telletxen; **22:30etan**, kontzertuak Tooth eta Dead Bronco taldeenak, San Nikolasen. Ostein DJ Bull txosnan, eta **23:00etan**, kontzertua, Akatz taldearena, Kasino plazan. (auzoko tabernekin antolatuta) eta edozein jaki egiteko lehiaketa, txosnagunean. Egitaraua osoa: <http://www.getxo.eus/es/servicios/avisos/311>

**Ingurumen Aretoa.** Boluetik ibilbidea hegaztiak identifikatzeko, **10:30etatik 14:00etara**, Seo Betsaide Elkartean eskutik. Dohainik baina izena eman behar da alde aurretik 688 88 35 96 edo [info@ingurumenaretoagetxo.eus](mailto:info@ingurumenaretoagetxo.eus) helbidean.

## Arratoiak hiltzeko udako kanpaina intentsiboa

Egun hauetan Udalak urtero arratoiak hiltzeko aurrera eramaten dituen kanpainenetako bat egiten ari da udalerrri osoan. Tratamendu intentsiboa izango da, orokorra eta aldi berean udalerriko honako toki hauetan: hilaren 16an Areetta-Santa Ana aldean, hilaren 17an Romo-Zugazarte aldean, hilaren

18an Negurin (metroko trenbide-tik Ereaga hondartzaraino), hilaren 19an Negurin (metroko trenbide-tik Gobela ibairaino), hilaren 20an Algorta-Andra Marin, hilaren 23an Portu Zaharra-Algortako goialdean (metroko trenbide-tik Arrigunagako jaitsieraraino), hilaren 24an Sarrikobaso-Aldapa

eremuan, hilaren 25ean Euskal Herria kaletik Gobela ibairaino eta hilaren 26an eta 27an baserrialdean. Tratamendua guztiz eraginkorra izan dadin, herritarren laguntza eskatzen du Udalak, hurrengo arauak kontuan hartuz: kaleko animaliak (katuak, hegaztiak...) ez elikatzea, zaborrak 20:00etatik 22:00etara uztea eta paperontziak erabiltzea.



### Naturaren makro argazkigintzari buruzko tailerra

Ingurumen Arloak naturaren makro argazkigintzari buruzko tailerra antolatu du uztailaren 27 eta 28an. Helburua da 'makro' argazkigintza, xehetasun txikiak eskala handiagoko batean erakusten dituen modalitate hurbiltzea, nagusiki, landareak, intsektuak eta anfibio eta narrastiak ere. Tailerra hilaren 27an, 19:00etan, Villamonteko Kultur Aretoran izango da, eta 28an, 08:30etik aurrera mendian. Plaza kopuru mugatua. Informazioa: [ingurujiroa@getxo.eus](mailto:ingurujiroa@getxo.eus)



### Ongietorria udako harrerako umei

Imanol Landa Alkateak eta udalbatzako talde politikoen hainbat ordezkariak uda familia getxotarrekin emango duten 14 harrerako haur hartu zituzten udaletxeko batzar aretoan. Saharako errefuxiatuen kanpamenduetatik, Errusiatik, Bielorrusiatik eta Ukrainatik heldu dira umeak. Alkateak udalerrira ongietorria eman ondoren, umeak magia ikuskizun txiki batekin gozatu ahal izan zuten.



### Ikerlari japoniar bat Zurrumurruren kontrako Estrategia aztertzen

Takahiko Ueno ikerlariak Getxo bisitatu du Udalak sustatutako Zurrumurruren Kontrako Estrategia ezagutzeko. Ikasle japoniar honen interesa izan da bizikidetzeta eta kultur artekotasuna sustatzen dituen ekimena ezagutzeko eta baita etorkinei buruzko aurreiritziaren kontrako lana ere.



### Uda honetan, asko maite ezazu zeure burua

Bizkaiko Gurutze Gorriak sentsibilizazio-jardunaldiak eskainiko ditu uda honetan; besteak beste, hezkuntza-zein jolas-tailerrak egingo ditu eta lehen sorospenetarako nahiz bihotz-biriketako bizkortzea egiteko jarraibideak emango ditu Getxoko hondartzetan. Ekintza hau Uda honetan, asko maite ezazu zeure burua kanpainen barruan sartzen da eta udako arriskuak, horien ondorioak eta prebenitzeko hartu beharreko neurrien gainera informazioa emateko xedea du.

## Gobelaurreko lokalak erabiltzea eskatzeko

Datorren irailaren 7ra arte zabalik egongo da Udalaren Gobelaurre Boluntariotza Zentroko lokalak doako erabilpena lortu ahal izateko eskaerak aurkezteko epea. Udalgizarte Zerbitzuetako jardueraren eremuan lan egiten duten hirugarren sektoreko elkarrekin dira aipatutako guneak. Emate hori egoitza gisa eta baita komuneko tokiak aldi baterako jardueretarako erabiltzeko izango da. Bestalde, noizbehinkako jardueretarako guneen erabilpenaren ematea ez da deialdi honetan aurreikusten, hori urte osoan zehar eskaerak, eta bere ematea libre dagoen tokia eta ordutegiaren arabera izango da. Gobelaurre zentroak 463 metro koadroko azalera du eta egoitzetarako tokiak, aldi baterako jardueretarako espazioak (tailerrak, prestakuntza-ikastaroak...) eta noizbehinkako jardueretarako ere (jardunaldiak, bilerak...) ditu. Izaera juridiko propioarekin, etekin asmorik gabeko elkarrekin eskatu ahal izango dute tokien erabilpenaren ematea, Udalean eta/edo Eusko Jaurlaritzan erregistratuta baldin badaude eta Gizarte Zerbitzuekin kolaboratzen badituzte. Eskerak udalerriko HABetan aurkeztu ahal izango dira, eta baita Gizarte Zerbitzuek Algortan (Urgull kalean, z/g) duten egoitzan, edo legeak aurreikusitako tokietan ere.

## Elikadurari buruzko tailerra langileentzat

Kosmopolis elkarrekin langileen zaintza integralen elikadurari buruzko legegaren gaineko tailerra antolatu du. Uztailaren 24an (asteartean) egingo da, 19:00etan, Algortako egoitzan (Alangoeta, 8, behea). Elikadura osasungarriaren bitartez bizitza osasuntsua bultzatzeko helburua du eta langileei zuzenduta dago. Interesa duten pertsonak honako telefono-zenbaki hauen bitartez jar daitezke elkarrekin harremanetan: 946 852 103 eta 688 605 551. Informazio gehiago: [kosmopolis@live.com](mailto:kosmopolis@live.com), [www.kosmopolis.es](http://www.kosmopolis.es) eta [www.facebook.com/kosmopolis.live.1](http://www.facebook.com/kosmopolis.live.1)

Norberaren iragarriak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukien egiazkotasunaren erantzule izango.

**Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111**

**STAFF** Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitza-erantzuleen albisteak eta informazioak agertzen dira astero. Komunikazio zinegotzia: **Amaia Agirre** Zuzendaria: **Javier García**. Erredaktoreburua: **Itziar Aguayo**. Erredakzioa: **Nekane Ardanza**, **Monika Rodrigo**, **Iñigo Olondo**.

Urgull Kalea z.g., 4º. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. E-posta: [getxokoudalaprentsa@getxo.eus](mailto:getxokoudalaprentsa@getxo.eus) Arte arduradunak: **Bostnan Bilbao S.L.** Inprimaketa: **Bilbao Editorial Producciones S.L.U.** Banaketa: **Lantegi Batuak** Gordailu legala: **BI-388-87**


Bette Smith ostiralean, hilak 20, ariko da eta Coco Montoya amaiera ipiniko dio jaialdiari, larunbatean

## Getxo&Blues hastear The Excitements eta The Blues Morning Singers taldeekin

Bartzelonako The Excitements taldeak hasiera ipiniko dio ostegunean, hilak 19, 20:00etan, 30. Nazioarteko Blues Jaialdiari, Algortako Biotz Alai Abesbatza plazan. Koko Jean Davis abeslari buru duen taldea Memphis, Detroit eta Chicago aldean kokatu izan da eta 50eko hamarkadako azken aldiko R&B bizia nahasten du 60ko hamarkadako Stax soinuarekin. Bandaren zuzenekoetan R&B estiloko bertsiotz indartsuak txandakatzen dituzte gai originalekin, betiere zati erritmiko ahaltsu batekin.

Kataluniarren ostean, The Blues Morning Singers Bilboko laukote elektroakustikoa ariko da. % 100ean jotzen ditu blues doinuak, bere aldaera eta estilo guztietan. Taldeak ihes egiten du erabili ohi diren erreperitorioetatik eta, era berean, estereotipoetatik aldetzen da, musika afroamerikarrean sakonki errotutako konposizioak eskainiz. Bere erreperitorioak, besteak beste, hauexek hartzen ditu barne: Del-tako blues soinu umela, 50eko hamarkadako Chicagoko blues zorroz elektrikoa eta Ameriketako Estatu Batuetako Mendebaldeko Kostako zein New Orleansko jump blues dantzaldiak. Kontzertu hauen sarreraren prezioa 10€koa da.

Ostiralean, hilak 20, 21:00etan, Bette Smith abeslari amerikarraren txanda izango da, blues urratzaile eta soul sutsuen erakuslea, hain zuzen ere. Brooklyngo artista blues panoramaren errebelazioetako bat izan zen iaz *Jetlagger* diskoari esker, neo-blues delakoaren erakusgai izugarria dena; izan ere, bere ahots sutsu eta hareatsua une gorenera heltzen da, eta Betty Davis edo Tina Turner dirudi kanta batzuetan eta funky txundigarria beste batzuetan blaxploitation estiloko soinua-reen, betiere soul kutsuetatik urrundu



Coco Montoya



Bette Smith



The Excitements



The Blues Morning Singers

barik. Sarreraren prezioa 10€koa ere izango da.

Coco Montoya (1951, Santa Monica) gitarr-jotzaile kaliforniarra itxiko ditu Getxo&Bluesaren saio nagusiak, larunbatean, ordu berean. Albert Collins handiarekin hasi zuen ibilbide profesionala. Bateria-jotzaile izan zen lehenik, baina handik gutxira gitarrarengatik aldatu zuten baketak. Bere aukera handia heldu zen John Mayalkek kontratatu zuenean Bluescasters taldearekin behin-behinean egiteko bira; horrela, bere ospea artista

ezagunen mailara igo zen, hala nola, Eric Clapton, Peter Green eta Mick Taylor musikariarena. 90ko hamarkadan, bakarka aritzea erabaki zuen, eta esfortzuzaren emaitzak ikusi ziren gutxira, argitaratu zituen diskoen bitartez, besteak beste: *Gotta Mind To Travel*, *Ya Think I'd Know Better*, *Just Let Go* eta *Suspicion*. Lan horiek bere ibilbidea oinarritu egin dute. Sarreraren prezioa 15€koa izango da.

### Bestelako saioak

Barney's Band eta Maraya taldeen

emanaldiak izango dira, hilaren 20an eta 21ean, 23:00etatik aurrera, Algortako The Piper's Irish Pubeko saioetan. Halaber, Granujas a Todo Ritmo Street Band taldeak kaleko giroa alaituko du. Azkenik, hilaren 21ean eta 22an, jaialdiak kontzertuak estreinatuko ditu goizeko ordutegian, Stereo-sonik bertoko elkarteak antolatuta, The Big Flyers eta Still River taldeak Kirol Portuko ostalaritza terrazetan arituko baitira 13:00etan, hurrenez hurren.



African Tumbas

## Kenia, Errusia eta Getxoko taldeak Folklore Jaialdian

Uztailaren 22tik 24ra Getxoko 34. Nazioarteko Folklore eta Dantza Jaialdia ospatuko da. Hiru egunez, Kenia, Errusia eta Getxoko taldeak jardungo dira Algortako Biotz Alai Abesbatza plazan, 21:00etatik Aurrera. Sarrera doakoa izango da.

Igandean, uztailak 22, African Tumbas talde kenyarraren eskutik hasiko da jaialdia. Anthon Kurunduk zuzendutako 21 dantzarik zenbait errito eta zeremoniekin (ezkontzak, jaiotzak, ehiza eta guda) lotutako dantza afrikar erakutsiko dituzte. Masai dantzak ere

antzeztuko dituzte, hain berezkoak dituzten saltoekin.

Hurrengo egunean, Getxoko Itxartu Taldea ariko da. Sortua izan zenetik, taldea euskal dantza eta kulturaren mesederako lana burutzen ari da, dantza-berrikuntza eta freskotasuna bermatzen duen irakaskuntza dela medio. Azkenik, Ogonki konpainia errusiarra itxiko du jaialdia asteartean. 40 bat dantzarik osatuta, umorea, trebezia, eta tradiziozko jantzien kolorea dira Ogonkiren ezaugarri nagusiak, folklore siberiarra erakusterakoan.

## Arte eszeniko garaikideen ekoizpen- eta egoitza-beka

Andrés Isasi Musika Eskolak lehen *Proszenia* egoitza-bekarako deialdia egin du Getxoko Kultur Etxearekin lankidetzan, Getxoarte esparruaren barruan. Bekaren diru-kopurua 5.000€koa izango da. Beka honen helburua da jarduera eszeniko garaikidearen inguruko ikerketa ez-formaleko prozesu eta eremu horiek ezagutzera ematea. Beka honen xede izan ahal da, arte eszenikoari lotutako lan-prozesu baten bidez gorputzaren eta diskurtsoen arteko erlazioei buruzko informazioa ematen duen edozein ekarpen.

Lanaren aztergaia elementu horiei eta beste batzuei buruzko informazioa ematen duen edota gogoeta egiten duen edozein ikerketa praktikoa izango da. Baldintza gisa proiektu guztiek lotura edo lankidetzatza bat izaten hasi beharko dute Getxoko udalerrarekin eta haren eragileekin, edo haiekin ekintzak egin beharko dituzte.

Hauetako programa honen helburuak: ikerketa eta ekoizpen artistikoa sustatzea; bertako sortzaileak sustatzen laguntzea; bertako sortzaileek artearen eta kulturaren arloko beste artista eta profesional batzuek elkarri eragin diezaiotzen erraztea. Aukeraturitako ikerketa-proiektuaren iraupena sei hilekoa izango da (2018ko azaroaren 1etik 2019ko apirilaren 30era



arte). Romo Kultur Etxean (RKE) gauzatu beharko da, etenik gabe, eteteko baimena badu salbu.

Eskaerak aurkezteko epea 2018ko irailaren 3tik 21era izango da; eskaerak aurkeztu beharko dira [www.getxo.eus](http://www.getxo.eus), web orrialdean, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan edo Algortako Kultur Etxean. Galderak egiteko: [getxoarte@getxo.eus](mailto:getxoarte@getxo.eus).

Thinking Fadura taldea definitzen ari da abuztutik aurrera hiritarrekin partekatuko dituen aurretiko proposamenak

## 1.450 lagunek baino gehiagok hartu dute parte Fadura kirol parke berrirako premiak eta aukerak biltzeko fasean

Guztira, 1.452 lagunek ekarpenak partekatu dituzte *thinking Fadura* taldearekin, Getxo Kirolak buru izan duela, Fadura kirol parke berrirako premiak eta aukerak biltzeko fasean, apirila amaieran hasi eta duela gutxi amaitu dena. Bi hilabetez, hainbat tailer antolatuta dira, harpidedunei, kirol klubei, hiritarrei, premia berezidun kolektiboak, gazteei, UPV/EHUko ikasleei, udal kiroldegia erabiltzen dituzten adinez txikikoei eta, azkenik, Getxoko Udalean ordezkariak dituzten alderdi politikoei zuzenduta. Fase honetan, parte-hartze digitaleko plataforma ere abian jarri da. Horiengandik, 796 lagunek modu digitalean egin dute; 448k bertan bertako saioetan; eta 208 lagunek, berriz, Fadurako harpidedunei eta ikastaroetan parte hartzen dutenei banatu zitzaizkien galdetegien bidez.

Bildutako informazio guztiarekin, *thinking Fadura* taldea aurretiko proposamenak definitzen ari da, abuztutik aurrera, hiritarrekin partekatuzko, parte-hartze plataforma digitalaren bidez. Lan hau zehatz mehatz ezagutu arte, eta baita hirigintza eta arkitekturako lehen proposamenak ere, baieztatu daiteke uneko Fadura Getxo Kirolak erakundearen



erabiltzaileek erabiltzen dituzten kirol instalazioekin elkarrekin bizitzeko parke publiko bilakatzeko plangintza orokorra erabat adostu egin dela. Era berean, estalki gabeko instalazioak berritzeko eta egokitzeko beharra nabarmen geratu da, urte osoan zehar ahalik eta gehien erabili ahal izateko. Azpima-

rratu behar da ere parte hartu dutenek adierazitako sentikortasuna, ingurumena errespetatzeko neurriak hartzeari dagokionez. Hura hainbat ideia zehatzetan islatu da, besteak beste: Bolueko hezeguneari eta Fadura Gobelarekin konektatzen duen ibai pasealekuari nagusitasun handiago ematea. Horrez gain,

partekatutako ikuspegi bat eman da, alegia: gune ireki bat ezartzea, sarbide puntu gehiagorekin eta bizikletaren erabilera sustatzen duten konponbideekin, oinezkoekin eta kirolekin elkarrekin bizitzeko. Nabarmentzekoa da ere argiztapen eraginkorra edukitzeko beharra, parke berria erabiltzen duten pertsona guztien segurtasuna bermatzeko. Laburbilduz, prozesuan parte hartu dutenek *thinking Fadura* hobekuntza orokorreko aukeratzat jo dute, bai zerbitzuena eta bai instalazioena, beraz, proposamen kopuru handia bildu da, alderdi orokorretatik hasita zehatzagoak diren beste batzuetara iritsita.

Abuztuan irekiko den bigarren fasean modu digitalean parte hartzeko aukerarekin, prozesuaren hurrengo hitzordua irailaren 20an izango da. Bertan, orain arte parte hartu duten guztiei parke berria definitzen jarraitzeko gonbita egingo zaie, lehenengo fasean bildutako premia eta aukera guztiak abiapuntu hartuta. Ordura arte, interesa dutenek prozesua ezagutu dezaketela <http://thinkingfadura.eus/eu/> webgunearen eta #thinkingFadura etiketaren bidez, sare sozialetan.

Irailaren 5etik 30era

## Getxophotoren gaia “Gatazka-ostea: elkarrizketa berreraiki” izango da

Gatazkaren esanahiaz gogoeta egitea, bere arreata gatazka-osteko garaian eta elkarrizketaren berreraiketan ipiniz, izango da XII. Getxophoto, Nazioarteko Irudi Jaialdiaren gaia, irailaren 5etik 30era. BegiHandi elkarte getxotarrak antolatuta, eta Mónica Allende, zuzendari artistiko eta Sunday Times Magazine aldizkariaren editore grafiko ohi bilbotarrak gainbegiratuta, aurrekoetan bezala, Udalak Jaialdia laguntzen du, beste erakunde batzuek bezala, hau da Bizkaiko Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak. Aurkezpenean, Imanol Landa Alkateak, ekimenaren aldeko apustu sendoa berretsi zuen eta nabarmendu zuen BegiHandi elkarte getxotarrak proposamen kulturala antolatzekeko urte osoan egiten duen lan petoa. Proposamen hori gure udalerraren eta lurraldearen kultur eskaintzaren barruan kokatzen da baina baita gure mugetatik kanpo ere. “Eta urtero gainera aurreko edizioaren maila gaindituz. Jaialdi berritzailea, partehartzailea, gure herria irudiaz, eztabaidaz eta gogoetaz bustitzen duena, lehen mailako egileen sormenaz, hausnarketaz, partehartzeaz gozatzeko aukera paregabea eskaintzen digun jaialdia.” adierazi zuen Alkateak.

Getxophoton ikusizko adierazpenak jasotzen dira, eta horiek bitarteko ezberdinak erabiltzen dituzte, besteak beste argazkiak, bideoak, artxiboak, instalazioak, eta abar, 45 herrialde baino gehiagoko artistenak. Aretoak eta barneko bestelako espazioak ahaztu gabe, erakusketa gehienak kanpoaldean jartzeko sortuak izan dira, esate baterako, fatxadetan, lorategietan edo azoketan. Berritasun bezala, *Open Call* nazioarteko



deialdi ireki batek ahalbideratu du Max Pinckers irabazleak, Jaialdiaren egitarauan parte hartu ahal izatea.

### Egitarauaren aurrerapena

“Getxophotok hogeitabi erakusketa (banakakoak eta kolektiboak) izango ditu ikusgai, gatazka ekologiko, teknologiko, politiko edo gizakien arteko buruzkoak”, azaldu du Jokin Aspuru, jaialdiaren zuzendariak. Erakusketen artean, Markel Redondoren Espainiako eraikuntza krisia, Luca Locatelliren Alemaniako iraultza energetiko berdea edo Josh Begleyren Ameriketako Estatu Batuen eta Mexikoren arteko mugari buruzkoak izango dira. Punta Begoñak jaialdiaren gune estrategikoa izaten segituko du, eta oraingoan, *estatua gatazkan* izeneko

erakusketa kolektiboa erakutsiko du, kolonialismo espainiarrari, gerra zibilari eta Euskal Herriko lan metaforiko bati lotutako lanekin. Jaialdiak *Jump Trump* instalazio satirikoa ere izango du, presidenteari kritika egiteko.

Bi esperimentazio tailer izango dira, XIX eta XXI. mendeetako ikusizko kontakizunetan oinarrituta. Aurten hurrengo toki hauetan ere erakusketak izango dira: Getxoko Kultur Etxean, Bilboko Rekalde aretoan eta FNAC-en eta Donostiako Kutxa Kultur-earen. Jaialdian ohiko Itxialdia, Hamaiketako, edalontzi azpiko ibilbideak, eguneko eta gaueko bisita gidatuak eta zinema oheetan Punta Begoñan izango dira.

## Bizkaia Zubiaren zati bat apaintzea

Bizkaia Zubiak 125 urte bete dituela ospatzeko, El Transbordador de Vizcaya SL enpresa kudeatzaileak lankidetzaz hitzarmen bat sinatu du UPV/EHUrekin, gure Munduko Ondarea eta historia zabaltzeko asmoz. Hori horrela, hiriko eta aire zabaleko adierazpen artistikoen bidez zubiaren egituraren balioa nabarmentzeko ekintza bat deitu zen. Zehazki, grafitien edo hormako pintura-konposizioen bidez sartzeko pasabideen kanpoko lau estalkiak apaintzea proposatu zen.

Aurkeztutako lanak baloratu ostean, Pablo Zabala getxotarraren lana aukeratu da. Pablo EHU/UPVko Pintura Masterra ikasten dabil eta Zornotzako Pintzelak elkartearen pintura irakaslea da.

Portugaleteko aldean hasi ziren lanak, eta datorren larunbatean, hilaren 28an, horma-irudiak inauguratzea aurreikusten da, zubiaren urteurren egunean, hain zuzen ere.

### Lanen ezaugarriak

Bizkaiko meatze-paisaiari buruzko gaiak modu positiboan baloratu ziren, honako ezaugarriak betetzen zituztenak: jatorrizko egiturarekiko errespetua; pasabidearen ikuspegi zentralatik zurrara eragitea, eta meatzaritzari lotuta dagoen gure iraganari eta gure itxarpenaren (ondoren etorri zen garapen industrialari bide eman ziona) buruzko mezu bat helaraztea. Hori guztia artista hasiberriek urteurrenean parte hartzea sustatuz eta Europako Kultur Ondarearen Urtearekin bat eginik..



Argazkia: Arenas C

## Arenasen aurrendenboraldia hastear da, lehen partida Osasunaren aurka jokatuz

Arenas Club taldeak, jokalarien zerranda oraindik itxi barik duela, aurrendenboraldi berriari aurre egingo dio, partida sorta garrantzitsua jokatuz; eta nolabaiteko maila duten aurkarien kontra jokatuko du abuztuko azken astean hasiko den denboraldia prestatzeko asmoz.

Aste honetan, astelehenean, hasi dira entrenamenduak eta bi egun beranduago, asteazkenean, taldearen aurkezpen ofiziala egin zen zaleen aurrean, Gobelan. Zuzendari-tza batzordeak denboraldi berrirako finkatu duen helburu nagusia taldea Kopan sartzea da, 1919ko maiatzean Bartzelonaren aurka lortu zuen Koparen mendeurrena ospatzeko. Hori dela eta, klubak hainbat ekimen bixi antolatuko ditu denboraldian zehar, taldeari, bazkideei zein zaleei zuzendua.

Aurreneko norgehiagoka Osasunaren aurka izango da, larunbat honetan, hilak 21, Fadura zelaian, 19:30etik aurrera. Astebete beranduago, hilaren 28an, larunbata, Bilbao Athletic izango da arerioa. Abuztuan, zazpi izango dira Gobelako taldeak aurrean edukiko dituen aurkariak: Sodupe, hilaren 1ean, Unión Adarve -talde madrildarra berriro dator aurrean-, hilaren 4an, taldea aurkezteko dute egun horretan, Balmaseda, hilaren 8an, Vitoria, hilaren 11n, Sestao River, 14an, Bas-

konja, 18an, eta Durangoko Cultural. Azken horrekin eta Bilbao Athleticekin hiruko torneoak jokatuko du Tabirako zelaian, 15ean.

Baja ugari izan dituen arren, Jon Pérez Bolo entrenatzailearena barne, *Historikoa* asko indartu da. Zortzi dira 2018-2019 denboraldirako altak: Uche (Badajoz taldeetik etorritakoa), Etxaniz (Ebro), Güemes (Gernika), Azkue (Vitoria), Markel Lozano (Bilbao Athletic), Carrio (Gernika), Luis Martínez de Quel (Ecija) eta entrenatzailea, Jabi Luaces, hori ere Gernikatik etorritakoa, Endika Bordas bere bigarrenarekin batera.

## Mikel Bildosola, Espainiako Master +35 txapelduna

Mikel Bildosola (35 urte) getxoztarrak, Espainiako txapeldun master bilakatu zen +35 Espainiako Txapelketako Open Master-ean, Reusen. Mikelek urrezko domina 100 Libreetan eskuratu zuen Europako errekorra hobetuz, 51"63ko denbora batekin, aurrekoa 51"98.

Horrez gain, Getxo Igeriketa Bolue Kirol Elkartek, erreleboetan Munduko 2 Errekor hautsi zituen. Taldea Mikel eta Iñaki Bildosola, German Zubiaur eta Mikel Debak osatzen zuten, eta balentria 4x100 Libree-

Klubeko bi jokalarik San Frantziskoko Mundu Txapelketarako deitu dituzte

## Ohorezko Mailara itzultzea, Getxo Errugbiaren erronka

Gizonezkoen lehen taldea Ohorezko B Mailara jaitzi ondoren, Juan Carlos Bado eta Jose Luis Youngek zuzendutako taldeak ezohiko erronkari eutsi beharko dio, alegia, estatuko errugbiaren maila gorenean toki bat berreskuratzea. Dena den, elkarte beltz-horitik aipatzen dutenez, zilarrezko liga txapelketatik igarotzea hasiera batean uste zitekeena baino erronka askoz zailagoa izango da, seguruenera.

Izan ere, datorren denboraldian, 2018-2019an, Ohorezko B Maila 36 taldek osatuko dute, hiru multzotan banatuta egongo direnak: A, B eta C multzotan. Getxo Errugbi A multzoan jokatuko du, beste bost euskal talderekin -AVK Bera Bera RT, Babyauto Zarautz RT, Uribealdea RKE, AVIA Eibar Rugby eta Durango Nissan Gaurisa RT-, hiru galiziarrekin -Campus Universitario Ourense RC, CRAT A Coruña y Kaleido Universidad de Vigo RC-, bi gaztela-leoitarrekin -SilverStorm El Salvador Emerging eta VRAC Quesos Entrepinares B- eta kantabriar batekin -Bathco

Rugby Club- batera. Itxuraz, multzorik indartsuena da, eta horregatik lehenengo errondan txapeldun izatea, erronka zaila izateaz gainera, getxotarrentzat lehenengo oztopoa baino ez da igorarako bidean; izan ere, lehen errondaren ondoren gainontzeko bi taldeetako onenen aurka jokatu beharko lukete.

Errefortzuen atalean, dagoeneko ofiziala da Julio Speziali argentinarrak, lehen lerroko jokalaria, fitxa berri duela; Heineken Liga amaitu berriari jokalaria garrantzitsuenetako bat izan da talde beltz-horian. Jokalari horrez gainera, klubak espero du jokalariei berrien fitxaketa egitea uztaila amaitu aurretik.

### Barbara Pla eta Uribarri Barrutieta, 7s mundu txapelketan

Beste alde batetik, Getxo Errugbiak bi ordezkari izango ditu emakumezkoen munduko seven (zazpiko) txapelketan; ostiral honetatik, hilak 20, aurrera jokatuko da San Frantziskoko (AEB). Barbara Pla eta Uribarri Barrutieta espainiar selekzioaren deialdian sartu dira goi mailako txapelketa hori jokatzeko. Oraingo honetan, Barbararentzat munduko hirugarren txapelketa da eta Uribarrirentzat, berriz, bere debuta izan daiteke. Espainiako selekzioak txapelketako aurreneko partidua jokatuko du, ostiralean, 19:00etan, Fidjiaren aurka. Irabazten badu, final laurdenetan sartuko litzateke.



Bárbara Pla

Uribarri Barrutieta

## Pirinioetara txangoa

Etorkizuna mendi-taldeak Lleidako Pirinioetara egingo duen asteburu pasako irteerara izena emateko epea ireki du irailaren 10era arte (txangoa irailaren 14tik 16ra izango da). Irailaren 15ean (larunbata) Besiberri Sud mendia igoko dute (3.030 m) eta irailaren 16an, berriz, Tuc de Sarrahèra (2.633 m).

Bidaiaren prezioa 110 €koa izango da Etorkizuna taldeko kideentzat, eta 120 €koa gainerakoentzat. Izen-emateak: [etorkizunamt@gmail.com](mailto:etorkizunamt@gmail.com), tel.: 606 637 128.



### Bolsovak eta Cachínek Getxon irabazi dute

Aliona Bolsova moldaviarrak eta Pedro Cachín argentinarrak Getxoko Nazioarteko Tenis Txapelketaren XX. edizioako emakumezkoen zein gizonezkoen finala irabazi zuten, hurrenez hurren. Bolsovak hurrengo urratsa eman zuen bere ibilbide profesionalean Olga Sáez madrildarrari nagusitu zitzaionean (6-0 eta 6-1) 52 minutuko partiduan. Moldavian jaio zen baina Palafrugellen (Gironan) bizi izan da 2 urte zituenetik; gaur egun WTAko 263. tokian dago. Bestalde, Cachín ATPko 305. tokian dago eta Alicanteko Carlos Boluda jokalaria irabazi zuen (6-3 eta 7-5) ordubete eta 45 minutuko partiduan.



### XI. Open Getxoko sariak

Aurreko astean Faturan egin zen Aixerrotako padel-taldeak antolatutako Grand Slam Bizkaia - Open Getxo Padel lehiaketako XI. edizioari dagokionez, Olano-Gonzalezek emakumezkoen kategorian irabazi zuen eta Bergareche-Francok, berriz, gizonezkoen kategorian lortu zuen garaipena. Aurten, Bizkaian parte-hartze handien daukan lehiaketetako bat denez, federazioak Grand Slam kategorian sartu du. Berrikuntza gisa, beteranoen kategoriak jokatu zuten. Sariak eman ondoren, kirol-jaiaren amaieran oparien zozketa egin zen, baita dagoeneko ohikoa den paella-jan erraldoia ere.

# Udal talde politikoaren iritzia



JAIETAN ERE, EZ BETI DA EZ

Itxas Argiak antolatutako paella-txapelketa izango da asteburu honetan, Santa Anako jaiak ere bertan dira dagoeneko, San Inazioak laster datoz eta ondoren Portu Zaharreko zein Mesedeetako auzoko jaiak izango ditugu, azken horiek gutariko gehienok oporretatik bueltan gaudenean. Kirol-, aisialdi-, jai- zein kultura-jarduerak egiteko sasoia da orain, baita udaz, oporrez, aisialdiaz, lagunez eta familiaz gozatzeko ere; funtsean, Getxoko kaleetan, hondartzetan zein pasealekuetan denbora asko egoteko eta jai-giroa izateko unea da. Udako eguraldian jarrera lasaiagoa izaten dugu gure jardueretan eta gizarte-harremanetan; alabaina,

udan zein jai-giroan, **EZ BETI DA EZ**. Emakume eta gizonezkoen arteko berdintasunak nahiz pertsonen arteko errespetuak oinarritzeko balioak izan behar dute, udan ere bai. Ez dago justifikaziorik inolako errespetu-faltarik egiteko; izan ere, edozein ordutan, ekitalditan zein topaketan, aurreko fasean zein unean bertan, **EZ BETI DA EZ**. Getxon erreferente izan gara eta orain ere bagara berdintasunaren alde egindako lanagatik, eta emakumezkoen eta gizonen arteko errespetu zein bizikidetzan ere eredu izan nahi dugu. Getxok lanean jarraitzen du "emakumeak espazio publikoan askatasunez ibil daitezten eta hori libre erabil dezaten, nahi beste kaletik lasai ibili daitezten, eta sexu-harremanak norekin, noiz eta nola izan nahi dituzten erabaki dezaten. Hitz batez, emakumeen nahia erabat errespetatzen duen gizartea lortzeko". Getxoko Udaleko agente eta estamentu guztiek jarraitzen dute arau hori eta, noski, une honetan gogorarazi nahi dugu hauxe azpimarratze aldera: **EZ BETI DA EZ**.



PSE-EE  
PSOE

HAPO  
BERRIKUSTEA

HAPOko berrikusketak hiru fase izan ditu: "Aurreko ikerketak", "Aurreurrerapena" eta III. fasea edo "Aurrerapena", 2015. urtean amaitu zena. Herritarren parte-hartze handia egon zen eta irismen zein eduki desberdinak lortu ziren; halaber, zenbait taldek eta elkarte osatutako lantaldeak funtsezko eginkizuna izan zuen. Orain, Aurrerapena jasotzen duen agiria jendaurrean erakutsi beharra dago. Hainbat informazio- eta prestakuntza-hitzaldiren bitartez, eta planoak nahiz zenbait material erakutsiz, getxoztarrek urrira arte iradokizunak eta alternatibak proposatzeko dauzkaten aukerak argi eta modu ulergarrian azaldu nahi zaizkie herritarrei. Plan orokorra funtsezko tresna da, lurzorua, bere erabilerak, okupazioa eta eraiki beharreko etxebizitza-kopurua nahiz eraikigarritasuna sailkatzen dituen; 10-12 urteko indarraldia du eta izan nahi dugun Getxo diseinatzen du. **Eskuragarri dauden aukerak zuzenean ezagutzera eta zure iritzia osatzera animatzen zaitugu; hala, iritzia propioarekin, saihestuko duzu bertsio sinplifikatzaileak eta interpretazio interesdunak edo demagogikoak zailantzan jartzea.**

Cs

JAIK  
DESPOLITIZATZEA

Beste urte batez, beharrezkoa den hurrengo urteetan egingo dugun bezala, Getxoko Ciudadanos Udal Taldeak testu bat aurkeztu dio Udaltzari, jende guztia barne hartzen duten herri-jaiak lortze aldera. Auzo bakoitzeko herri-jaietan mezu politikorik ez egotea nahi dugu jai-esparruan egon beharreko giroa izateko, dibertsio-giroa, hain zuzen ere. Gure ustez, sasoia da udalak ulertzeko hainbat iritzia politiko desberdin daudela gizartean eta, guzcion onurarako, jai-giro osasuntsua lortzearen alde egin behar dela lan. @CsGetxo



JAI ZORIONTSUAK GUZTIOI



Luzaroan espero izan dugun uda heldu da azkenik. Atsedean hartzeko, bidaiatzeko eta gure udalerriko auzoetan egiten diren jai ugarietz gozatzeko sasoia da. Denok gozatzeko jaiak izango ditugu. Eta denok diogu hala izan behar delako. Beste urte batez, giro despolitizatuan ospatu nahi ditugu gure jaiak, zeinetan errespetua nagusitu behar den eta ez den inolako jarrera matxista edo biolentorik onartu behar. Lanean jarraituko dugu irailean ikasturte politiko berriari ekiteko xedez, indar gehiagorekin eta ideia berriekin. Zuen txangoez gozatu! Eta geratzen zaretenoi... Getxotik ikusiko dugu elkar!



EPAILEAK ALKATEARENGANDIK BABESTEN DITU HERRITARRAK

Epaille batek berretsi behar izan du alkateak **epuz kanpo** eta zaratari buruzko legea urratuz emandako obra-baimena. Ibarbengoako apartakalekua egiten ari den enpresak baimena eskatu zuen gauez obrak egin ahal izateko. Zioa: Metro Bilbaok ez zion egunez obrak egiten utzi materialak katenariara jausteko arriskua dela eta. Enpresak egindako eskaeran ohartarazi zuen gaueko obretan gauez baimendutako zaraten gehieneko mailak gaintutuko zirela. Uztailaren 1ean (igandea)

Tosuko baserri eta etxebizitzetatik metro gutxira dagoen arroka zulatu zuen **udal-baimenik gabe**. Hala, 5 gauren ostean Udaltzaingoak batez beste 107 dezibelio erregistratu zituen. Udaleko arauaren arabera ezin dira 40 dezibelioak gaintu. Etxeak 4 egunez mugitzen egon ondoren, Imanol Landa alkateak gauez obrak egiteko baimena eman zuen; hortaz, ez zuen bete teknikari batek Udaltzaingoarekin kontsultatzeko egindako ohartarazpena eta, horrez gain, ez ikusiarena egin zion enpresaren abisuari. Epailleak uste

du alkateak ez dituela herritarren eskubideak babestu eta adierazi du alkateak Florentino Pérez handikiaren enpresari, Geocisa y Dragadosi, eman dizkiola baimenak atzera eraginez. Gaiaren larritasuna dela-eta, bertan behera utzi zituen lanak eta kautelaz eten zuen alkatearen ebazpena, Hirigintzako zinegotziak sinatutakoa. Alkateak izandako ezohiko jokabideari buruzko azalpenak nahi ditugu; bitartean, auzotarren elkar-teak eta kolektiboak erabakitzen ari dira ea prebarikazioko kasua den.

ehbildu

Erasorik gabeko  
jai zoriontsuak  
nahi ditugu!

